



**2010EKO UZTAILAREN 29KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko uztailaren 29an, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio eta Javier Moreno González de Lara.

Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da M<sup>a</sup> Lourdes Garmendia Guerra zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman eta esaten du eguneko gai zerrendan ez dagoen puntu bat tratatzea planteatzen duela presazko izaeraz, Joaquin Agirre Garin, M<sup>a</sup> Dolores Agirre Garin eta Luis Zugasti Orbe J./A.k Kanpoko Igerilekuetako jabetza kentzean Nahitaezko Jabegokentzeetarako Gipuzkoako Lurralde-Eapimahiaren akordioaren aurrean jarritako helegitean Lazkaoko Udala bertaratzeari buruzkoa hain zuzen ere.

Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, ontzat ematen du proposamena.

Alkateak esaten du puntu hau izango dela aurrena tratatuko dena.

**I.- ADMINISTRATIBO AUZIBIDEKO HELEGITEAN UDALA BERTARATZEA.-**

Nahitaezko Jabegokentzeetarako Gipuzkoako Lurralde-Eapimahaitik idatzi bat jaso da udal honetan. Idatzi horretan udalari jakinarazten zaio Joaquin Agirre Garin, M<sup>a</sup> Dolores Agirre Garin eta Luis Zugasti Orbe J./A.k, 890/10 zbk.dun helegitea jarri dutela Euskadiko Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzibideko Salaren aurrean, Lurralde-Epaimahiak 2010eko apirilaren 15ean, Joxemiel Barandiaran Kiroldegiko Zabaltzea-Kanpoko Igerilekuak Egitea Proiektuan 4.1 eta 4.2 finen jabetzakentzeagatik Nahitaezko Jabegokentzeetarako Gipuzkoako Lurralde-Eapimahiak finkatutako justiprezio akordioaren aurka.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lazkaoko Udala prozedimentuan bertaratzea.
- 2.- Lazkaoko Udala abogatu gisa jardun dezan, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatua izendatzea.

...///...

Une honetan M<sup>a</sup> Lourdes Garmendia Guerra zinegotzia berataratzen da.

## II.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2010eko ekainaren 24an egin-dako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

## III.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Eskatutako hainbat argibideri erantzun ondoren, Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

## IV.- 19 H.J.A. -LARREATEGI-KO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA.-

Udal honek, 2010eko ekainaren 22ko alkatezaren ebazpen bidez, AA.SS.etako 19. H.J.A. -Larreategi-ko Hiri Antolamenduko Plan Berezia hasierako izaeraz onartu zuen.

Dokumentua jendaurrean erakusgai eduki zen 20 egunetan, iragarkiak 2010eko ekainaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2010eko ekainaren 30eko Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratuz.

Dokumentua jendaurrean egon den denboraldian ez da inongo alegaziorik aurkeztu.

Bestalde Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusiaren txostena jaso da baita ere. Txosten honetan adierazten da ez dela eragozpenik ikusten.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, Hirigintza Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, AA.SS.etako 19 H.J.A. -Larreategi-ko Plan Berezia behin betikoz onartzea erabakitzen du.

## V.- 19 H.J.A. -LARREATEGI-KO ETXEBIZITZEN GARAPENAREN KUDEAKETA EGIN DEZAN LAZKAO LANTZEN, S.A.RI AGINTZEA.-

Lazkaoko Udalak Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 19. H.J.A. -Larreategi- garatzeko asmoa du, bilkura honetako aurreko puntuan gune horretako Plan Bereziari behin betiko onarpena eman zaiolarik.

Hori horrela izanik, Udal titularitateko Lazkao Lantzen, S.A.ri lan hori aurrera eramatearen kudeaketa egin dezan agintzea egokia ikusten da, eta horixe hain zuzen ere Osoko Bilkura honen aurrera aurkezten dena bere onarpenerako.

...///...





...///...

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 19 H.J.A. -Larreategi-ko etxebizitzaren garapenaren kudeaketa Lazkao Lantzen, S.A.ri agintzea erabakitzen du.

#### VI.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Kreditu Aldaketa espediente honetan barneratzen diren hainbat kontzeptuei buruz dauden argibide eskakizunei erantzuna ematen zaie baita ere.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako hau

#### **ERABAKI DA**

**Lehenik.**- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

#### **KREDITU GEHIKUNTZAK**

<b>Kapituluak</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	11.812,50 €
IV	Transferentzia arruntak	6.970,00 €
VI	Inbertsio errealak	379.700,00 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>398.482,50 €</b>

#### **FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK**

<b>Kapituluak</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
-------------------	--------------	-------------------

...///...

...///...

VI	Inbertsio errealeen bester. eta hirig. sarrerak	52.100,00 €
VII	Kapital transferentziak	90.246,51 €
VIII	Aktibo finantzarioak	256.135,99 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>398.482,50 €</b>

**Bigarren.**- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**VII.- DEFIZITA MURRIZTEKO MAIATZAREN 20KO 8/2010 ERREGE DEKRETUTIK SORTUTAKO NEURRIAK APLIKATZEARI BURUZKO AKORDIO PROPOSAMENA.-**

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuak zenbait neurri hartzen ditu defizit publikoa murrizteko, bereziki, Europar Batasunak abiarazitakoak bere Estatu kideak eta euroa defendatzeko, zenbait herrialdek defizitak zuzendu eta zorrak itzultzeko duten gaitasunei buruzko zalantzei erantzuteko. Horretarako, bada, aipatutako Errege Lege Dekretuan bildutako neurriak ezarri dira. Neurriotako helburuetako bat da soldata-masaren ehuneko bost murriztea, urteko.

Zehazki, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuak adierazten du, nazioarteko krisi finantzarioan jatorria duen krisi ekonomikoaren indarrak ezaugarritutako egoera ekonomiko batean (hazkundean eta enpleguan eraginda duena), premiazkoa dela hainbat herri-administrazioetako langileen gastuari eusteko neurriak hartzea. Ondoren aiderazten duenez, neurri horren helburua da "soldata masa ehuneko bost murriztea, urteko", eta ezarri duenaren arabera, "administrazio guztiek aplikatu beharko dute; gisa horretan, autonomia erkidegoek eta udalbatzek dezente aurreztuko dute, langile kopurua handia baita oso".

EUDEL-en Batzorde Agintariak, 2010eko maiatzaren 27an, langile publikoen ordainsariak murrizteari dagokionez, adostu zuen jarduera bategina eta koordinatua proposatu behar zela gainerako instituzioekin -Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza-, Errege Lege Dekretu honen helmena eta eragina zehazteko. Akordio hori betetzeko, eta instituzio bakoitzak dituen alde eta berezitasunei kalterik egin gabe, koordinazio hori lan-ildo nagusitzat jo da. Halaber, erakunde guztiek iriztitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruaren berezitasunak abagunea ematen digu bete beharreko Errege Lege Dekretu hau zehatz-mehatz ez aplikatzeko.

Hori guztia betetzeko, jarraian garatzen den Akordioak soldata-masaren %5 murriztea du helburu, urteko. Murrizketa hori langileen ordainsarrietatik lortuko da, besteak beste, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legearen 22. artikuluko hainbat atal aldatzen dituen maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren 1.2. eta 1.3. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki. Artikuluok oinarritutakoak dira, 8/2010 Errege Lege Dekretuko Amaierako Bigarren Xedapenak beren-beregi jasotakoaren arabera.

...///...





...///...

Aipatutakoari kalterik egin gabe, eta neurri hau zehatz-mehatz aplikatzeari dago-kionez, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak, gainerako euskal erakundeekin egin den bezalaxe, ordainsarien murrizketa pixkanaka-pixkanaka egingo dela. Hala, bada, ordainsari altuenak ehuneko altuago batekin hasiko dira, eta, horretarako, pixkanakako murrizketa jasotzen duen ordainketa taula berria ezarriko da, gainerako instituzioetan bezala. Pixkanakako murrizketa langileei aplikatuko zaie, UDALHITZ 2008-2010 Euskadiko Tokiko Erakundeeta-ko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa arautzen duen irizpideari jarraiki. Izan ere, horren arabera, langileen eta funtzionarioen lan-baldintzak berdinak dira. Hala, II. tituluko 64. artikuluan eta hurrengoan berariaz jasotzen denez, langileek funtzionarioek dituzten ordainketa kontzeptu berberako ordainketa-egitura antzekoa izango dute. Hori guztiori, betiere, kolektibo biei pixkanakako murrizketa berdinak aplikatuz gero.

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretutik eratorritako ezohiko neurri hauen ondorioz, Lazkaoko Udalak berau ezartzeko beharrezkoak diren aldaketak egin behar ditu, hain zuzen ere, Akordio honen edukian zehazten direnak. Zentzu horretan, saihestezina da, 8/2010 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasota dagoen bezala, 2010eko ekainaren 10etik aurrera, UDALHITZ 2008-2010 Euskadiko Toki Erakundeetako langileen baldintzak arautzen dituen akordioa zati batean baliogabetzea, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua eta akordio hau ezartzeko beharrezkoak diren terminoetan, eta, bereziki, eduki ekonomikoko neurriak.

EUDELeK, 2010eko ekainaren 22 an eta gero, baita, ekainaren 30ean ere, UDALHI-TZen Interpretazio, Kontziliazio eta Neurketaren Batzorde Paritarioa deitu zuela, sindikatu erakundeei Errege Lege Dekretuak gai honetan eta akordio honetan jasotako neurri eta irizpideei buruz informatu, eta, hala badagokio, adosteko, esaterako, Akordioa adierazita-ko terminoetan zati batean baliogabetzea. Batzordean ez zen adostasunik egon.

Ekintza hau bera Lazkaoko Udalak egin zuen 2010eko uztailaren 16an, akordioa lortzeko aukerarik gabe.

Horren guztiaren ondorioz, ondokoa proposatzen da:

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA.**- Lazkaoko Udalak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuan eta aplikatzekoa den araudi autonomikoan ezarritakoa betetzeko, betiere, eta, oro har, 2010erako bere Aurrekontuetako I. kapituluaren murrizketa ezartzeko.

Murrizketa hori soldata-masaren %5ekoa izango da urteari dagokionez. Ondorioz, eta kontuan hartuta neurriak 2010eko ekainaren 1etik aurrera izango dituela ondorioak, murrizketa %2,86koa izango da 2010eko ekainetik abendura arteko eperako; portzentaje hori lortzeko, urte osorako %5aren hamalau zatitik zortzi aplikatu dira.

**BIGARRENA.**- Arestian azaldutakoa aplikatuz gero, 2010eko ekainaren 1etik aurrera sek-tore publikoaren zerbitzura diharduten langileek eskuratu beharreko oinarritzko ordainsari-ak maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuko 1.2. eta 1.3. artikuluetan dauden tau-letan jasotakoak izango dira. Izan ere, lege horretako artikuluek Estatuko Aurrekontu Na-

...///...



...///...

gusien abenduko 23ko 26/2009 Legeko 22. artikuluko BIGARREN eta BOSGARREN atalak aldatzen dituzte.

**HIRUGARRENA.**- Murrizketa neurriak Udalean dauden ordainketa maila ezberdinen artean progresibitate irizpideekin aplikatzeko bermatu ahal izateko, enplegatu publikoek urteko murrizketa izango dute, **ondoko taulak** zehazten dituen ehunekoetan (UDALHITZen I. ERANSKINEAN oinarritutako taula orientagarria):

<b>UDALHITZeko MAILAK BAINO ORDAINSARI ALTUAGOAK</b>	<b>2010eko ORDAINSARIA</b>	<b>%eko murrizketa, aplikazio epean</b>	<b>%eko murrizketa, urteari dagokionez</b>
	70.000,00 €	2,86	5,01
	65.000,00 €	2,78	4,87

<b>UDALHITZ MAILAK</b>	<b>2010eko ORDAINSARIA</b>	<b>%eko murrizketa, aplikazio epean</b>	<b>%eko murrizketa, urteari dagokionez</b>
30	61.257,34 €	2,72	4,76
29	59.547,58 €	2,68	4,69
28	57.837,42 €	2,62	4,59
27	56.127,26 €	2,55	4,46
26	54.418,32 €	2,48	4,34
25	52.707,46 €	2,38	4,17
24	50.997,43 €	2,25	3,94
23	49.287,01 €	2,20	3,85
22	47.577,93 €	2,15	3,76
21	45.867,22 €	2,10	3,68
20	44.157,61 €	2,05	3,59
19	42.447,44 €	1,97	3,45
18	40.737,54 €	1,91	3,34

...///...





...///...

17	39.027,25 €	1,86	3,26
16	37.317,22 €	1,82	3,19
15	35.607,20 €	1,81	3,17
14	33.897,16 €	1,73	3,03
13	32.187,26 €	1,65	2,89
12	30.703,14 €	1,55	2,71
11	29.219,30 €	1,05	1,84
10	27.735,30 €	0,95	1,66
9	26.251,44 €	0,78	1,37
8	24.870,67 €	0,68	1,19
7	23.490,18 €	0,56	0,98
6	22.129,69 €	0,56	0,98
5	20.769,20 €	0,56	0,98

**Oharra:** Taula honetan ez dago barne hartuta antzinatasuna.

Irizpide hori lehenasunezkoa izango da urte honetako abenduko aparteko ordain-sarian aplikatzea. Ondorio horietarako, aparteko ordainsariari dagokion kopurua aplikatuko zaio, harik eta aplikazio epeari dagokion minorizazioa guztiz osatu arte. Minorizazio hori aurreko taularen minorizazio ehunekoen arabera kalkulatu da, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuko 1.2. eta 1.3. artikulua aipatzen duten soldataren gaineko aplikatetik eratorritakoak murriztu ondoren.

**LAUGARRENA.**- Aldi baterako langileei, konfiantzazko karguei, enpleguko funtzionarioei eta asimilatutako langileei antzeko ordainsaria duen langile publikoari aplikatu zaion ehuneko bera murriztuko zaie.

**BOSGARRENA.**- 2010eko ekainaren 1etik aurreragoko ondoretarako, 2008ko irailaren 22an sinatu eta Udal honetan 2008ko urriaren 30ean onartutako UDALHITZ 2008-2010 Euskadiko Toki Erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa zati batean baliogabetzea, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua behar bezala aplikatzeko beharrezkoak diren terminoetan, eta, bereziki, eduki ekonomikoko neurriak aplikatzeko.

**SEIGARRENA.**- Indarrean dagoen araudiaren arabera, maiatzaren 20ko 8/2010 EDTik eratorritako langileen kostuak murrizteko neurriak aplikatetik lortutako baliabideek erakundearen egoera ekonomiko-finantzarioa hobetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea izango dute helburu.

...///...

...///...

**ZAZPIGARRENA.-** Alkateari gaitasuna emango zaio bere kargutik akordio hau gauzatze-ko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izateko.

**ZORTZIGARRENA.-** Akordio honen berri ematea EUDEL Euskadiko Udalen Ekarteari.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak horretarako baimena eman ondoren Joseba Hernandezek esaten du aurtengorako Udalhitz izenpetuta dagoela hori behintzat errespetatu egin beharko litzakela eta norberaren borondatez norberak bere soldata jeistea oso ondo iruditzen zaiola baina langileei soldata jeitsiera inposatzea oso gaizki iruditzen zaiola.

Udal Osoko Bilkurak, Ogasun eta Pertsonal batzordearen proposamenez, gaia bozketan jarri eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartu egiten du.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak horretarako baimena baimena eman ondoren Joseba Hernandez esaten du estali gabeko igerilekuetarako sarreran jarri den pertsonak euskaraz ez omen dakiela eta hori bideratu al daiteken galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio galdera jasota gelditzen dela.

Jendartetik baita ere, Angel Eztalak, Ausartondori ireki zitzaion zehapen espedientearen egoerari buruz galdetzen du eta alkateak espedientea nola dagoenaren berri ematen dio.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

